

# Getxo >MEETING<



**Apirilak 15**

## **Eta online bilerak horren astunak izango ez balira?**

Noizbait joan bazara online bilera edo prestakuntza saio batera eta aspergarria edo luzeegia iruditu bazaizu... zergatik izan dela uste duzu?

Azken Getxo MEETINGeko partaideen artean egin genuen zerrenda hau, ondoren buelta emateko gustuko ez dugun horri, giltzarriez eta tresna erabilgarriez baliatuz.

Bilera edo prestakuntza saio aspergarri baten osagarriak eta saihesteko modua:

- *Iraupen luzeegia:* Online saioetan formatu luzeegiak ekidin behar dira. Bi ordu edo bi ordu eta erdi baino gehiago jada gehiegi da online formatura behar bezala egokitzeko. Pantaila bati begira luzaroan arreta mantentzea zaila da. Eta ikusleak beste zerbait egiten hasteko arriskua dago. Eduki blokeen artean etenalditxoak egitea normalizatu beharko litzateke.

- *Hizkuntza teorikoegia edo espezializatu egia, hotza eta emozio gutxikoa.* Horrek entzuleak urruntzen ditu, eta deskonexioa sor dezake. Adibideek, pasadizoek eta ariketek edukiak atseginago eta hurbilago bihurtzeko balio dezakete.

- *Guztia entzutea eta entzutea baino ez denean:* Horregatik da interesgarria banaka egiteko ariketak proposatzea eta bideo laburren bat edo irudiren bat edo beste tartekatzea. Bestelako hizkuntzak ere sustatu, hizkuntza bisuala kasu. Ikuspegi praktikoa lantzeak hartzaileak erne egonaraziko ditu.

- *Hartzaileen parte-hartzerik gabe:* Dinamika baten bidez sustatzen bada partaideek saioaren hasieratik hitz egitea, askoz ere errazagoa izango da saioan zehar sortzen diren galderak une egokian ahots goran esatea.

- *Pantailak aktibatu gabe:* Norbere aurrean pantaila beltz mordo bat izateak eragiten du prestatzailearen edo dinamizatzailearen ekintzek erantzunik ez izatea. Beraz, motibazioa galduko du. Izan ere, ez daki ea jendea hor dagoen, berarekin. Hori ekiditeko trikimailu bat da partaideei alde aurretik jakinaraztea zein izango den saioaren formatua. Kamerarekin, mikrofonoarekin, soilik hitz egiteko aktibatuta... Era berean, txata erabiltzeko arauak ezar daitezke, eta horiek idatziz izateak hartzaileei saioaren formatua ulertzen lagunduko die.

- Parte-hartze gehiegi, bakoitza bere kasua kontatzen: Kasu horretan, komeni da prestatzaileak gaia zentratzen laguntzea, eta lantzen ari den gaiarekin lotzea. Hala, alderdi zehatzegetan sartzea saihestuko da, gainerako partaideei ikasteko aukerarik eskaini gabe.

Gehiago jakin nahi baduzu:

<https://www.linkedin.com/pulse/claves-determinantes-para-facilitar-sesiones-online-o-miren/>

<https://www.linkedin.com/pulse/cuáles-son-los-ingredientes-de-la-participación-en-lauzirika-jauregi/>

Azkenik, ariketatxo bat egin dugu, honakoen berri izateko:

Zeintzuk dira zure prestakuntzetan txertatu nahi dituzun elementu berritzaileak?

Zer uste duzu atera daitekeela gaizki?

Egin nahi duzun hori zertarako egin nahi duzu? Zein onura ekarriko dituela uste duzu?

Zure hurrengo online ikastaroan edo hitzorduan praktikan jartzera animatu nahi zaitugu.